



## Euskal Literaturaz Goza

### ALASKA

Nork ez du errepide galduan, egun buruzuri horietako batean, kotxea bazterreratu eta negarretan hasi? Desordu horietan beti egiten du euria, euririk ez badago ere, eta hotza. Beti agertzen da Anariren kantuetako oreina seinaletan harrapatu. Ez da zertan kotxerik egon, eta seguruen, errepiderik ere. Atmosfera da kontua, eta hori kantu batean, edo argazki batean edo poema liburu batean aurki zenezake. Castillo Suarezek Alaska kaleratu du, eta lehenengo lerroetan esaten dizu dagoeneko badakizuna: lehenago edo geroago, beti iristen da negua.

Poema bati eska diezaiok ezuna aldakorra izan liteke. Aspaldi hasi nintzen berrirakurketak egiten, eta horietan jabetu naiz noberbaren bizitza ueña zein garrantzitsua den poema edo kantu baten aurrean. Hala ere, daitort, beste arrazoi aldeko batzuk ere izan ditzaket. Ez ditudala gauzak hain argi honetan. Uste dut gehiegi irakurtzen dugula eta zaila egiten zaidala astindua emango didan zerbait aurkitzea askotan. Eta halako batean Alaska azaltzen da espeleologia teknikak erabilia zure barrenetara zuzenean doana. Zu ere balea baten esperoan zaudelako, zuk ere badakizulako ezin duzula ezer egin maitatzen ez zaituenekin, elur-min zarelako, min eta beldur bilduma duzulako. Bai, lehen hauskorak ginen eta orain iraunkorrak, eta pentsatzen hasita (ia) ezagutzen ditugu gure baitan bizi diren emakume guztiak; zuk ere urte batzuk badituzulako. Dagoeneko denbora ez dugu ordutan neurtzen, honezkero poematan neurtzen dut nik. Eta Alaska-n geratzeko moduko eternitatea sentitu dut. Badakizu, ordea, ezin zarela poematan geratu, hor kanpoan errealitatea dagoelako. Eta errealitateak badu ordurik, eta lo faltarako pilulak, eta urdailerako hautsak, eta fitxatzeko makina, sakelakorako kargadorea, eta beti ahaztu egiten zaizun frutarako poltsa. Askok edertasuna sortzen dute eguneroko arrunkeriekin, elurrarekin edota oreinekin, eta eskerrak eurei..

### IRAUTERA

Castillo Suarezzi zer edo zer gertatu zaio. Haizeak pinuaren adaburua lez inguratu du bizitzak, eta Irautera eder honen bitartez ekarri dizkigu zaurgarritasuna eta indarra, etsi gaiztoa eta kreatibitatea. Liburu bakanak dira horrela laburbiltzen dituztenak garai bateko gazi-gozoak, non gazia ez den hain gazi, non gozoa den saihestezin esateko beste modu bat: "Maitetasunak badu abantaila bat bederen:/ zauririk ez da egiten orbainen gainean".

Castillo Suarezzi zer edo zer gertatu zaio beraz. Eta nori ez.

Musika talde bateko kide guztiak momentu magiko batek jota egon eta diskoa grabatzen dutenean bezala, grazia egoeran daude hemen Castillo guztiak. Autoafirmazioarena, bakardadearena, feminitatearena. Denek batera konposatu dute pieza bat bakarra, liburu honetako poema guztiak osatzen baitute bakarra. Bere aurreko liburuak baino liburuago, Irautera hiztegi bat ere bada maitasunaren botanikaz hitz egiten diguna. Eta aurreko liburuen aldean sinbolismo arean gutxiago ere nabari zaio, errealismo minimalista bat darabil-eta, non ñabardura guztiak diren inportanteak: "Ez kantarik, ez argazkirik./ Joan zinenetik/ saihesten ditut mendiak zein ibaia".



Castillo Suarez Garcia (Altsasu, Nafarroa Garaia, 1976ko ekainaren 11) euskal idazle, Euskara teknikaria toki-administrazioan, filologo eta euskaltzain osoa da.

### Biografia

Euskal Herriko Unibertsitatean burutu zituen Euskal Filologiako lizentzia ikasketak. Sakanako Mankomunitatean euskara-teknikari ari da lanean 2003tik aurrera. Zenbait komunikabidetan kolaboratzaile aritu izan da, esaterako Argia aldizkarian eta Berria egunkarian.

Beste literatura arloen artean, olerkigintzan dihardu, eta 2010ean Ebelina Mandarinara obrarekin Zarautzeko Udalak antolatutako XXVIII Lizardi Saria irabazi zuen. Helduentzako narrazio laburretan ere aritu izan da, eta, adibidez, 2014an Peru Abarka album ilustratuaren lehiaketaren irabazlea izan zen, Zerua berun lanari esker.

Literaturan aritzeaz gain, hizkuntzalaritzan aritua da. 2016an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

2017. urtean, Azkue Fundazioak antolatutako 'Blogetan!' lehiaketan, Castillo Suarezen 'Iparraldeko neska' bloga saritu zuten Kultura kategorian.

**2023ko azaroak 6,  
19:00etatik - 20:00etara  
Ikasbide kultur elkartearen**

**Edu Zabalak zuzendua**